

**GOBERNU JUNTAK 2022ko Urriak 24ean EGINDAKO
OHIKO BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

MAITE ANTON LENO (lehendakaria)

OÑATI

BOKALAK

GARAZI LARREA ZUMELAGA (lehendakariordea)

ANTZUOLA

AINHOA LETE ZABALETA

BERGARA

ANIK ZUBIZARRETA ARTURO

OÑATI

IZARO ELORZA ARREGI

OÑATI

UNAI ELKORO OIANGUREN

ARETXABALETA

ANDER GARAY ZABALETA

ARRASATE

CRISTINA MARQUINA IGARZA

BERGARA

IRAITZ LAZKANO

ELGETA

GORKA ARTOLA

BERGARA

ETORRI GABEAK

ARITZ MURUA ACHA

ARRASATE

AINHOA CABERO GARCIA

ARETXABALETA

MAITANE MUÑOZ GOIKOETXEA

ARRASATE

MARIA UBARRETXENA CID

ARRASATE

EUGENIO OTSOA UGALDE

LEINTZ-GATZAGA

JOSE RAMON ZUBIZARRETA ALEGRIA

ESKORIATZA

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA

Leire Ucin Soraluze

2022ko urriaren 24an, 11:00etan, Mankomunitateko lehendakaria, Maite Anton Leno, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

1.- Aurreko Gobernu Juntako bilerako akta onartzea, hala badagokio.

Inork ez dauka ezer esateko aurreko katari buruz, beraz, aho batez onartzen da.

2.-Lehendakariaren ebazpenen berri ematea.

Inork ez du ezer esateko lehendakariaren ebazpenei buruz.

3.- 2021eko gerakina udalei itzultzea onartzea, hala badagokio.

2021eko azaroko ogasun batzordean, 2022ko aurrekontuak landu zirenean, ondorengo erabakia hartu zen:

2) 2020ko gerakinaren ezohiko erabakia

2020ko likidazioko 688.766,67€ko gerakinetik, 191.587,36 € Epelekoak dira. Abere hiltegiko 18.000€ gerakina 2022ko aurrekontura bideratuko da instalazio fotovoltaikoa egiteko. Beste 479.179,31 €ak 2022ko aurrekontuetan inbertsioak egin eta udal ekarpenak murrizteko erabiltzea erabaki da.

Erabakia:	2022ko aurrekontuko inbertsioak finantzatzeko erabiltzea 2020ko gerakina. Epelekoa epelera bideratuz.
------------------	---

2021eko azaroko ogasun batzordean, 2022ko aurrekontuak landu zirenean ondorengo erabakia hartu zen:

Epelekoa epelera bideratu zen eta gerakin horrek estali du 2021eko epeleko emaitza negatiboa. (inolako sarrerarik ez eta mantenu gastuak.)

2020 eta 2021eko Abere hiltegiko gerakina instalazio fotovoltaikora bideratuko da.

2022ko inbertsio eta ondorioz kapital ekarpen beharrak 320.000€ nahiko izango direla aurreikusten da.

Garapen agentzian iaz ordaindu behar ziren 24.000€ Arizmendiri ordaintzeke gelditu ziren gerakinean eta beraz kopuru hau berreskuratu eta dagokion ordainketa egin behar da.

Epeleko defizit eta obrarako 235.000€ hartzea proposatzen da.

Garapen agentziari dagokionez, Aintzat hartuz Orientazioko gastuen %99 pertsonal gastuak direla, hauek berriz igoera proposamena dutela, orientatzaileetako bat urte osoa bajaz dagoela eta orain honen ordezkoa ere bajaz eta enplegu zentroko laguntza etorkizunean ziurtatu gabe dagoela, Garapen agentziako zerbitzu buruak, orientazioko altxortegi gerakina bertan uztea proposatzen du aurten emaitza negatiborik ez izateko.

Kontu-hartzaitzako AOTaz batera aztertuta datuak, hau ere bat dator.

Altxortegi gerakin banaketa hau aintzat hartuz honela geldituko litzateke:

Altxortegi gerakina epele gabe: 1.280.876,86 €

Inbertsioak finantzatzeko:	320.000,00 €
Epeleko obra egiteko:	235.000,00 €
lazko dirulaguntza:	24.000,00 €
Orientazioan gerakina utzi:	26.383,92 €

Udalei: 675.492,94€

Proposatzen da udalei 675.492,94 Euro itzultzea.

Puntua bozkan jartzen dute, eta hau da emaitza:

Alde (10): Garazi Larrea, Maite Anton, Ainhoa Lete, Anik Zubizarreta, Izaro Elorza, Unai Elkoro, Ander Garay, Iraitz Lazkano, Gorka Artola, Cristina Marquina

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

4.- Epele zabortegiko zelda berriko 2. fasearen itxiera partziala eta 3. fasearen sorrerarako obra egikaritzeko gastua onartzea, hala badagokio.

Gastua: 1.914.317,39 Euro

1.582.080,49 Eur + (BEZ)

Partida: 3600.623.162.36 99 Epeleko inbertsioak

	Orokorrak	Kirola	Ingurumena	Epele	Hiltegia	Garapen proiektuak	Garapen Agentzia	Europar programak	Turismo	Argiteria	Guztira	
Gastu orok. altx. gerakina	206.742,34 €	38.249,96 €	1.316.389,99 €	62.595,02 €	37.000,00 €	62.454,21 €	78.249,01 €	7.298,38 €	166.430,77 €	0,48 €	1.975.410,16 €	
N+1 ekitaldirako txertatzeak	20.379,57 €	9.250,00 €	567.154,22 €	17.859,53 €	0,00 €	16.212,53 €	427,17 €	6.987,50 €	11.527,29 €	0,00 €	649.797,81 €	
Finantzaketa lotu gabe												
Kontabilitate errorea sarrera bikoiztua												0,00 €
Txertatu ezin diren kreditu-gerakinak	186.362,77 €	28.999,96 €	749.235,77 €	44.735,49 €	37.000,00 €	46.241,68 €	77.821,84 €	310,88 €	154.903,48 €	0,48 €	1.325.612,35 €	
Instalazio fotovoltaikoa					37.000,00 €		0,00 €	0,00 €	0,00 €		37.000,00 €	
Orientazioa						26.383,92 €					26.383,92 €	
Epeleko fondoari			235.000,00 €								235.000,00 €	
Arizmendiren dirulaguntza							24.000,00 €				24.000,00 €	
Ingurumena inbertsioak			250.000,00 €								250.000,00 €	
Turismo kartelak								18.000,00 €			18.000,00 €	
Inbertsioak beste sailak	15.000,00 €								0,00 €		15.000,00 €	
Guztira:	15.000,00 €	0,00 €	485.000,00 €	0,00 €	37.000,00 €	26.383,92 €	24.000,00 €	0,00 €	18.000,00 €	0,00 €	605.383,92 €	
Udalei itzultzeko gerakina	171.362,77 €	28.999,96 €	264.235,77 €	44.735,49 €	0,00 €	19.857,76 €	53.821,84 €	310,88 €	136.903,48 €	0,48 €	720.228,43 €	Epelekin
											675.492,94 €	Epele gabe
Epele			44.735,49 €									
Udalenak	Jatorria	Helburua								Sartu beharrekoak		
Biztanleka	494.641,09 €	83.383,92 €	411.257,17 €							Aurrekontuetan		
Zergadun baliokideka	749.235,77 €	485.000,00 €	264.235,77 €							Eginda		
Hiltegia	37.000,00 €	37.000,00 €	0,00 €									
Guztira	1.280.876,86 €	605.383,92 €	675.492,94 €									
2020ko gerakina herriko	Biztanleka	Biztanleka Elgeta gabe	Zergadun baliokideka	Udal Gerakina 2021		Biztanleka	Zergadun baliokideka	Biztanleka Elgeta gabe	Udal Ekarpina 2022	Kopurua Dirutan	Herria	Kontua
ANTZUOLA	%3,34	%3,44	%2,86	39.265,98 €		%3,33	%2,88	%3,39	17.976,57 €	21.289,41 €	ANTZUOLA	IBAN ES45
ARETXABALETA	%11,29	%11,49	%10,67	140.056,67 €		%11,36	%10,89	%11,57	66.555,13 €	73.501,54 €	ARETXABALETA	IBAN ES67
ARRASATE	%35,09	%35,70	%35,25	450.927,37 €		%34,96	%34,28	%35,61	208.604,00 €	242.323,38 €	ARRASATE	IBAN ES58
BERGARA	%23,31	%23,76	%26,40	321.856,32 €		%23,32	%26,02	%23,75	154.406,85 €	167.449,47 €	BERGARA	IBAN ES94
ELGETA	%1,80	%0,00	%2,01	23.979,59 €		%1,82	%2,46	%0,00	13.428,27 €	10.551,33 €	ELGETA	IBAN ES85
ESKORATZA	%6,53	%6,64	%6,13	80.666,05 €		%6,60	%6,15	%6,73	37.818,02 €	42.848,03 €	ESKORATZA	IBAN ES78
GATZAGA	%0,37	%0,37	%0,23	3.638,11 €		%0,34	%0,23	%0,34	1.521,77 €	2.116,34 €	GATZAGA	IBAN ES82
ONATI	%18,28	%18,59	%16,44	220.486,76 €		%18,27	%17,10	%18,61	105.073,32 €	115.413,44 €	ONATI	IBAN ES45
GUZTIRA	%100,00	%100,00	%100,00	1.280.876,86 €		%100,00	%100,00	%100,00	605.383,92 €	675.492,94 €		
						83.383,92 €	485.000,00 €	37.000,00 €	605.383,92 €			

Puntua bozkan jartzen dute eta Epeleko zabortegiko zelda berriko itxiera partziala eta Puntua bozkan jartzen dute, eta hau da emaitza:

Alde (10): Garazi Larrea, Maite Anton, Ainhoa Lete, Anik Zubizarreta, Izaro Elorza, Unai Elkoro, Ander Garay, Iraitz Lazkano, Gorka Artola, Cristina Marquina
Kontra: 0
Abstentzioa: 0

5.- Epele zabortegiko zelda berriko 2. fasearen itxiera partziala eta 3. fasearen sorrerarako obraren plegu teknikoak eta administrazio-pleguak onartzea, hala badagokio.

Epele zabortegiko zelda berriko 2.fasearen itxiera partziala eta 3.fasearen sorrerarako obra kontratazioa. HASERAKO TXOSTENA

Kontratuaren xedea.

Epele zabortegian, zelda berriko 2.fasea partzialki zigilatu eta 3.zelda sortzeko obra exekutatzeko kontratua.

Kontratuaren premia eta egokitasunaren justifikazioa.

2012. urtean Debagoieneko Mankomunitateak Epeleko zabortegi zaharra zigilatu eta Ingurumen Baimen Bateratuak eskatutako beteaz, inpermeabilizatutako zelda berria sortu zuen. Zelda berri hau 5. fase ezberdinetan bereziaz ustiatzen hasi zen.

2015. urtean zelda berriko 1.fasea partzialki itxi eta 2. Faseko zelda eratu zituen Mankomunitateak.

2017. urtean, 1.fasean isuritako CEGASako hondakinek zabortegiko lixibiatu berrian sortutako kutsadura mozteko helburuz, 1. Faseko zelda konfinatu, 2.faseko zelda egokitu eta Eraikuntza eta Eraispenerako Hondakinak (EEH) kudeatzeko plataforma sortzeko obrak burutu zituen Mankomunitateak.

2019, urtean, 2, faseko zelda bete egin zen, eta zabortegiko bideragarritasun ekonomiko faltagatik, zabortegiko ustiapena eten egin zuen Mankomunitateak.

3 urte beranduago, 2022 hasieran, Mankomunitateko Gobernu Juntak zabortegia berrirekitzea erabaki zuen. Horretarako zelda berriko 2.fasea zigilatu eta 3.fasea egokitzeko obra egin behar da.

HIRIGINTZA CONSULTING S.L. enpresak 2.fasea zigilatu eta 3.fasea egokitzeko obra proiektua idatzi du.

Bestalde, obra hau egin aurretik, zabortegiaren egoera geoteknikoa eta egonkortasuna baloratzeko azterketa egin du LURGINTZA INGENIERÍA GEOLÓGICA S.L enpresak. LURGINTZA-k aurkeztutako txostena aztertuta, azterketa geoteknikoa handitu eta sakontzea erabaki du Mankomunitateak, LURGINTZAK berak gomendatutakoa jarraituaz.

Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuaren iritziz, 2.fasea zigilatu eta 3.fasea egokitzeko obra hau esleitzeko lizitazioa martxan jarri aurretik, datozen asteetan

Nafarroa Etorbidea, 17 – 20500 Arrasate (Gipuzkoa)

gingo den azterketa geotekniko gehigarriaren behin-betiko emaitzak ezagutu beharko genituzke. Ondoren, emaitza hauek zabortegia ustiatzen jarraitzeko gutxieneko segurtasun faktoreak bermatzen direla adieraziko balute, obra exekuzioari dagokion lizitazio prozesua martxan jartzea posible izango litzateke.

Baina Eusko Jaurlaritzak 2021.urte amaieran Epele zabortegia berrirekitzeko Mankomunitateari emandako milioi bat euroko diru-laguntzaren zuriketa epeak direla medio, Mankomunitateko arduradun politikoei 2.zelda zigilatu eta 3.zelda prestatzeko obraren lizitazioa martxan jarri nahi dute. Ondorioz, oraindik azterketa geotekniko gehigarriaren behin-betiko emaitzarik ez dugun arren, obraren lizitazio espedientea hasteko haserako txostena prestatu da Ingurumen Zerbitzutik, arduradun politikoen eskaera jarraituz.

Baliabide Urritasuna

Mankomunitateak ez du giza baliabide, ezagutza zein baliabide materialik Epele zabortegiko obra hau exekutzeko. Ondorioz, obra exekuzio lanak kanpoan kontratatu behar dira.

Prozedura: Irekia / **Tramitazioa:** Ohikoa

Kontratuaren epea.

Obra kontratu honen gehienezko epea 5 hilabetekoa da obra osoa gauzatzeko, eta zeldaren ustiapenarekin hasi ahal izateko 3 hilabete igaroko lirateke obrak hasten direnetik. Hau da, obra-lanak 3.fasea egokitzean hasiko lirateke (3 hilabete) eta jarraian 2.fasea zigilatuko litzateke (2hilabete).

Kaudimen tekniko edo profesionala

Enpresa lizitatuak sailkapen honen egiaztatzea aurkeztu beharko dute:

- A taldea. Lur mugimenduak eta zulaketak.
2. azpitaldea. Lur berdinketak.
4. kategoria

Azken bost urteetan gauzatuak diren obraren zerrenda, gauzatze onaren ziurtagiriaren bidez bermatua. Ziurtagiri horietan zenbatekoa, datak eta lekua adieraziko dira. Era berean, obraren lanbideak jarraitzen dituen araudia betez egin eta behar bezala burutu zirela zehaztuko da.

Bestalde, geosintetikoaren instalazioari dagokionez, azken hamar urteetan enpresa lizitatuak edo lan horretarako azpi-kontratatuak diren enpresak iragazgaitzeko egindako obraren zerrenda aurkeztu beharko du, obra garrantzitsuenak ondo exekutatu izana egiaztatzen duten agiriaren bidez bermatuta. Agiri horietan obraren zenbatekoa, datak eta

non gauzatu ziren jasoko da; gainera, obrok lanbideak jarraitzen dituen araudia betez eta zuzentasunez egin zirela zehaztuko beharko da.

Enpresa lizitatuak hondakinen zabortegietan iragazgaizte lanak eginak izan behar ditu.

Kontratu loteka ez banatzeko justifikazioa

Egin beharreko obra, lote bakarrean esleituko litzateke, fase biak, bata bestearekin loturik baitaude. Bi faseetako obrak batera egiteak sinergia aprobeztatu eta obraren kostu ekonomikoa nabarmen murriztea dakar.

Kontratuaren lizitazio prezioa .

Prezioa: 1.582.080,49 € (BEZ gabe).

Proposatutako esleipen irizpideak.

- Proposamen ekonomikoa: %50.
- Berme-epa handitzea: %20 (%5 urte gehigarri bakoitzeko).
- Zabortegiko aktibitatearekin koordinatzeko plana: %10.
- Lanen programazioa: %10.
- Memoria teknikoa: %10.

Esleipenen Justifikazioa.

Era automatikoa baloratuko diren irizpideei, %70eko puntuazioa ematea proposatzen da. Berme-eparen handitzeari gehienez %20eko puntuazioa (%5 urte gehigarri bakoitzeko), eta eskaintza ekonomikoari %50-ko pisua.

Balio judizio baten menpe dauden irizpideei %30eko pisua esleitzea proposatzen da, kontratistek proiektua sakon aztertu eta teknikoki bideragarria den proposamen bat aurkeztu dutela ziurtatzeko. Azken irizpide hauen barruan, azpi-irizpide bakoitzari %10-ko pisua ematea proposatzen da. Aurrez egin izan diren obratan, "zabortegiko aktibitatearekin koordinatzeko plana"-ri pisu gehiago eman izan zaio, obra eta zabortegiaren ustiapena ondo koordinatzeak garrantzi handia duelako. Obra honetan ordea, 3.fasea egokitze lanak egiten diren bitartean ez da zabortegian aktibitate egongo. Zabortegiko aktibitatea 2.fasea zigitatzeko lanak egiten diren bitartean berraktibatuko da eta orduan izango da garrantzizkoa zabortegiko aktibitatearen eta obraren arteko koordinazio egokia bermatzea.

Puntuak bozkatzeko dute eta aho batez honako hau onartzen da:

LEHENENGOA. Plegu administratiboak eta plegu teknikoak.

BIGARRENA. Euskadiko Kontratazio Plataforman iragarkia argitartzea, eta 26 egueko epea eskaintzea enpresei proposamenak aurkezteko.

Puntua bozkan jartzen dute, eta hau da emaitza:

Alde (10): Garazi Larrea, Maite Anton, Ainhoa Lete, Anik Zubizarreta, Izaro Elorza, Unai Elkoro, Ander Garay, Iraitz Lazkano, Gorka Artola, Cristina Marquina
Kontra: 0
Abstentzioa: 0

6.- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen saileko Gobernu Kontseiluari Epeleko zabortegiko obra finantzatzeko dirulaguntza zuritzeko epea 2023ko abenduaren 31arte luzatzea eskatzea, hala badagokio.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Gobernu Kontseiluak 2021eko azaroan ebazpen bat eman zuen Epeleko obra finantzatzeko dirulaguntzaren inguruan.

Ikusirik Debagoieneko Mankomunitateak aipatutako ebazpen horretan xedatzen diren epeak ez dituela beteko, propsoatzen da dirulaguntza zurtzeko epeak luzatzeko eskaera egitea.

Puntua bozkan jartzen dute, eta hau da emaitza:

Alde (10): Garazi Larrea, Maite Anton, Ainhoa Lete, Anik Zubizarreta, Izaro Elorza, Unai Elkoro, Ander Garay, Iraitz Lazkano, Gorka Artola, Cristina Marquina
Kontra: 0
Abstentzioa: 0

7.- Arregi-Etxabe Juan Jose, S.A.enpreari 5.714 Euroko bermea itzultzea onartzea, hala badagokio.

Ingurumen saileko zerbitziburaren txostena ikusirik,

2018.08.15ean indarrean sartu zen Debagoieneko bide publikoan, garbiguneetan eta Mankomunitatearen beste bilketa zerbitzu batzuetan jasotako bolumen handiko etxeko hondakinak kudeatzeko zerbitzua,

ARREGI-ETXABE JUAN JOSÉ, S.A. enpresarekin. Kontratua 2 urterako sinatu zen, beste 2 urtez luzagarria izanik. Kontratu hau 2022ko abuztuan amaitu da. Kontratua indarrean egon den epean, bolumen handiko etxeko hondakinak kudeatzeko zerbitzua zuzentasunez eta kontratuan zehaztutako baldintzen arabera eskaini du ARREGI-ETXABE JUAN JOSÉ, S.A. enpresak. Ondorioz, zerbitzu kontratu honi dagokion bermea itzultzea proposatzen da Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzutik.

Puntua bozkan jartzen dute, eta hau da emaitza:

Alde (10): Garazi Larrea, Maite Anton, Ainhoa Lete, Anik Zubizarreta, Izaro Elorza, Unai Elkoro, Ander Garay, Iraitz Lazkano, Gorka Artola, Cristina Marquina
Kontra: 0
Abstentzioa: 0

8- Bañu-etxe S.L. enpresari 7.129 Euroko bermea itzultzea onartzea, hala badagokio.

2018.07.27an indarrean sartu zen Debagoieneko garbiguneetan eta Mankomunitateko beste bilketazerbitzu batzuetan jasotako plastikozko hondakinak kudeatzeko kontratua, BAÑU-ETXE S.L.enpresarekin. Kontratua 2 urterako sinatu zen, beste 2 urtez luzagarria izanik. Kontratu hau 2022kouztailean amaitu da. Kontratua indarrean egon den epean, plastikozko hondakinak kudeatzeko zerbitzua zuzentasunez eta kontratuan zehaztutako baldintzen arabera eskaini du BAÑU-ETXES.L. enpresak.

Ondorioz, zerbitzu kontratu honi dagokion bermea itzultzea proposatzen da Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzutik.

Puntua bozkan jartzen dute, eta hau da emaitza:

Alde (10): Garazi Larrea, Maite Anton, Ainhoa Lete, Anik Zubizarreta, Izaro Elorza, Unai Elkoro, Ander Garay, Iraitz Lazkano, Gorka Artola, Cristina Marquina
Kontra: 0
Abstentzioa: 0

9- UTE Debagoiena 2017ri 397.564,06 Euroko bermea itzultzea onartzea, hala badagokio.

2017.10.30ean indarrean sartu zen Debagoieneko etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzu kontratua UTE DEBAGOIENA 2017 enpresarekin. 3 urteko igaro ondoren, beste 1+1 urtez luzatu zen kontratua, 2022.09.30ean amaitu den arte. Kontratua indarrean egon

den epean, hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua zuzentasunez eta kontratuan zehaztutako baldintzen arabera eskaini du UTE DEBAGOIENA 2017 enpresak. Ondorioz, zerbitzu kontratu honi dagokion bermea itzultzea proposatzen da Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzutik.

Puntua bozkan jartzen dute, eta hau da emaitza:

Alde (10): Garazi Larrea, Maite Anton, Ainhoa Lete, Anik Zubizarreta, Izaro Elorza, Unai Elkoro, Ander Garay, Iraitz Lazkano, Gorka Artola, Cristina Marquina

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

10. 2021eko Kontu Orokorra onartzea, hala badagokio.

Idazkari-kontuhartzaileak azaltzen du 2022ko ekainaren 20an egindako ogasun batzordean onartu zela 2021eko Kontu Orokorra. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, eta alegaziorik izan ez denez, behin betikoz onartzea proposatzen da.

Puntua bozkan jartzen dute, eta hau da emaitza:

Alde (10): Garazi Larrea, Maite Anton, Ainhoa Lete, Anik Zubizarreta, Izaro Elorza, Unai Elkoro, Ander Garay, Iraitz Lazkano, Gorka Artola, Cristina Marquina

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Puntua bozkan jartzen dute, eta aho batez onartzen da:

LEHENENGOA. Kontuen Auzitegira bidaltzea 2021eko Kontu Orokorra, legeak agintzen duen bezala.

11. Galdera eskaerak.

Ander Garayk hartzen du hitza: dio idazkariari eskatu dizkiola Consultores de Gestión Pública eta Irabiur enpresen fakturak. Horren inguruan batzorde bat egitea eskatzen du.

Bestalde, io badakiela langileek eskuhartze psikosoziala eskatu dutela, beraz, hura martxan jartzea eskatzen du ahalik eta azkarren.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 12:00etan, bukatutzat eman da bilkura.

LEHENDAKARIA

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA